



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko maiatzaren 19a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun azpiegituren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, (2008-2014), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun azpiegituren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, (2008-2014), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko apirilaren 23an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun azpiegituren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, (2008-2014), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun azpiegituren kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena, (2008-2014), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II** Osasun azpiegiturak (3. or.).
 - II.1. Osasunaren arloko lurralde antolamendua eta azpiegituren banaketa (3. or.).
 - II.2. Osasun azpiegituren arloko inbertsioak (4. or.).
- III.** Helburua, norainokoa eta mugak (5. or.).
- IV.** Ondorioak eta gomendioak (6. or.).
- V.** Berrikusitako osasun azpiegiturak (10. or.).
 - V.1 Nafarroa 2012 Planean onetsitako inbertsioak (10. or.).
 - V.2. Nafarroa 2012 Planean jasota ez dauden beste inbertsio batzuk (29. or.).
- 1. eranskina Osasun Departamentuaren Nafarroa 2012 Planaren azpiegiturak. (33. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (35. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (38. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak 2014ko ekitaldirako lan-programan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ) azpiegituren kudeaketari buruzko 2008tik 2014rako fiskalizazioa sartu zuen.

Lana 2014ko azarotik 2015eko otsailera egin zuen auditoriako hiru teknikariek eta auditore batek osatutako lantalde batek, Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, ideia orokor batzuk ematen ditugu osasun-azpiegiturei buruz eta hirugarrenean, azkenik, lanaren helburua, norainokoa eta mugak azaltzen ditugu. Laugarren atalean, egindako lanaren ondorioak azaltzen dira, bai eta haiek direla-eta ematen digun gomendioak; bosgarren atalean, berriz, berrikusitako azpiegitura bakoitzerako aztertzen da zein izan den O-NOZen kudeaketa, programaziotik hasi eta funtzionamenduan jarri artekoa.

Gainera, eranskin bat ere gehitu dugu, non, Nafarroa 2012 Planeko azpiegitura bakoitzaren exekuzioa alderatzen baitugu –haren jarraipen-planen arabera– exekuzioaren kontabilizatutako kostuarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Osasun Departamentuari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua erakunde autonomoari lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. OSASUN AZPIEGITURAK

II.1. OSASUNAREN ARLOKO LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA AZPIEGITUREN BANAKETA

Foru Komunitateko osasunaren arloko lurralde antolamendua 56 osasun eskualde oinarrizkotan banatuta dago, hiru osasun barrutitan: Iruñeko osasun barrutia (Nafarroako Iparraldea, Nafarroako Ekialdea eta Tafalla), Lizarrako osasun barrutia eta Tuterako osasun barrutia.

Foru Komunitatearen osasun laguntza honako maila hauen bitartez ematen da:

- Oinarrizko osasun laguntza, oinarrizko osasun eskualdeen esparruan, osasun-etxeetan eta herrietako kontsultategietan ematen dena.
- Laguntza espezializatua ospitaleetan eta zentro espezializatuetan ematen da, hiru osasun barrutietan.

2013ko abenduaren 31n, honakoa zen azpiegituren banaketa:

- Iruñeko barrutia: Ospitalegunea, emakumeari laguntzeko zazpi zentro eta lau azpi-unitate eta osasun mentaleko zortzi zentro. 41 osasun eskualde oinarrizko hartzen ditu, eta 472.352 banakako osasun txartel dauzka.

Ospitalegunea 2010ean sortu zen, Nafarroako Ospitalea, Bideko Ama Birjina Ospitalea, Ubarmin Klinika eta laguntza espezializatuko beste zentro batzuk batuz.

- Lizarrako barrutia: García Orcoyen Ospitalea, emakumeari laguntzeko zentro bat eta bi azpi-unitate eta osasun mentaleko zentro bat. Zortzi osasun eskualde oinarrizko hartzen ditu, eta 62.041 banakako osasun txartel dauzka.

- Tuterako barrutia: Reina Sofía Ospitalea, emakumeari laguntzeko zentro bat eta osasun mentaleko zentro bat. Zazpi osasun eskualde oinarrizko hartzen ditu, eta 95.977 banakako osasun txartel dauzka.

- Aurreko hiru barruti horiek biltzen dituzten 56 osasun eskualde oinarrizkoek 58 osasun etxe eta 247 kontsultategi dauzkate oinarrizko osasun laguntza emateko.

O-NOZ Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoa da, eta hari dagokio Foru Komunitateko oinarrizko osasun laguntzako zentro eta establezimenduen kudeaketa; eta Gobernu Kontseiluari, berriz, bera baita O-NOZen zuzendaritza organoa, inbertsio orokorrak egiteko proposamenak onestea.

II.2. OSASUN AZPIEGITUREN ARLOKO INBERTSIOAK

Osasun Departamentuak 2008-2014 aldirako aurreikusita dauzkan inbertsioak 330,16 milioi euro egiten dute; horietatik, Nafarroa 2012 Planean onetsitako osasun-zuzkiduren eta -azpiegituren arloko inbertsioek 280,78 milioi euro egiten dute.

Nafarroa 2012 Plana Parlamentuak onetsi zuen 2008ko maiatzaren 23an, eta guztira 4.508,9 milioi euroko inbertsioa biltzen du Nafarroako Gobernuak eta enpresen sektore publikoak 2008-2011 aldian exekutatu beharreko azpiegitura publikoetarako.

Nafarroa 2012 Planaren lehentasunezko helburuetako bat zen "2008-2011 aldiko balizko desazelerazio fasea nabarmen arintzen laguntzea, eta Nafarroako Foru Komunitateari azpiegitura berri ugari ematea, bera, 2012. urtearen inguruan, lehiakortasunaren eta aurrerapen sozialen agertokian kokatzeko, etorkizunari arrakasta izateko berme ukaezinekin aurre egin ahal izateko moduan".

Nafarroa 2012 Planean azpiegitura publikoetarako aurreikusitako 4.508,9 milioi euroko guztizko kopurutik, Osasun Departamentuari esleitutako 280,78 milioi euroko kopurua bederatzita ospitale- eta laguntza-zentrori, bi zentro teknologikori eta ikerketa aplikatuko zentro bati dagozkie; 209,39 euro egiten dute guztira. Aurreikusitako gainerako jarduketak, 71,39 milioi egiten dutenak, zehaztu gabe zeuden.

Nafarroa 2012 Planean Osasun Departamentuarentzat programatutako 11 azpiegituren hasierako aurreikuspenak, 2008ko apirilean onetsitako 209,38 milioi kopurutik 2012ko abenduaren 31n onetsitako 132,88 milioi kopurura jaitsi ziren. Beherapen horren arrazoia exekutatzeko ezetsi ziren lehentasunezko jarduketetan bilatu beharra dago, diru-sarrera gutxiago baitzeuden eta defizit publikoa gutxitzeko konpromisoa zegoelako, izan ere, horiek Nafarroako Gobernuaren inbertsio-gaitasuna gutxitu zuten.

Honakoak ziren Osasun Departamenturako programatutako 11 jarduketak:

Azpiegitura	2008ko apirilko aurreikuspena	2012ko abenduaren 31ko aurreikuspena
Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoa	49.031.600	700.000
Nafarroako Ospitaleko "C" pabilioia birmoldatzea	29.972.000	32.397.400
Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia eremuak birmoldatzea	21.400.000	10.117.200
Nafarroako Ospitaleko Larrialdietarako eraikina	19.727.000	24.952.600
Ubarmin Klinikako kirurgia eremuak birmoldatzea	11.527.000	9.540.600
Tuterako osasun barrutiko kirurgia eremuak birmoldatzea	10.650.000	14.471.700
Zentro Psikogeriatrikoko Plan Zuzendaria	9.200.000	829.600
Bideko Ama Birjina Ospitaleko ama-haurrentzako larrialdi berriak	8.600.000	8.678.200
Osasun zentroak zabaltzea	8.154.000	9.528.600
Ospitale- eta laguntza-zentroak, guztira	168.261.600	111.215.900
Nafarroako Ospitaleko Ikerketa Zentroa	22.413.000	21.206.400
Irudi Medikoren Zentro Nazionala. Azpiegitura zientifiko tekniko berezia.	18.710.700	459.000
Zentro teknologikoak eta ikerketa aplikatukoak, guztira	41.123.700	21.665.400
Programatutako azpiegiturak, guztira	209.385.300	132.881.300
Programatu gabeko azpiegiturak (zehaztu gabe)	71.394.100	0
Osasun Departamentuaren azpiegiturak, guztira	280.779.400	132.881.300

Nafarroako Gobernuaren 2011ko otsailaren 11ko erabakiaz, Nafarroa 2012 Planeko lehentasunezko jarduketan plangintzaren gaurkotzea onetsi zen; exekuzio epea, berriz, 2012ra arte luzatu zen.

Nafarroa 2012 Planaren gainbegiratzea eta jarraipena Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dagokio. Gobernuaren 2008ko apirilaren 28ko erabakiaz, lehentasunezko jarduketa bakoitzaren exekuzioaren agente arduradunak izendatu ziren, bai eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko

Politika eta Sustapen Ekonomikoaren zuzendari nagusia ere, planaren jarraipena bideratzeko eta Gobernuari informatzeko arduradun gisa, betiere arduradunek aldizka emandako datuetan oinarrituta.

Politika eta Sustapen Ekonomikoaren zuzendari nagusiak egindako jarraipen txostenak Ekonomia eta Ogasun kontseilariari aurkezten zaizkio, Gobernuak onets ditzan.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren helburuak hauexek dira:

- 2008tik 2014ra exekutatutako osasun azpiegituren zenbatekoa aztertzea.
- Osasun azpiegituren plangintza, programazioa, exekuzioa eta funtzionamenduan jartzea ebaluatzea.
- Nafarroa 2012 Planean Osasun Departamenturako aurreikusitako azpiegiturei buruzko informazio ekonomikoa aztertzea.

Lanaren norainokoa 2008tik 2014ra bitarteko aldian osasun azpiegituren eraikuntzan eta ekipamenduan egindako inbertsioak izan ziren. Aldi horretan exekutatutako inbertsioen guztizkotik, 11 Nafarroa 2012 Planean Osasun Departamenturako 2008tik 2011ra onetsitako lehentasunezko jarduketei zegozkien.

Aztertutako lagina Nafarroa 2012 Planeko 11 azpiegiturak hartu zituen, bai eta plan horretan aurreikusi gabeko beste hiru ere.

Azpiegitura mota bakoitzaren kasuan, haien eraikitzearekin ase nahi ziren beharrianak aztertu ziren, exekuzioan zehar izandako desbideratzeak, esleipenarekin alderatuta, bai prezioan, bai epean, proiektuaren eta obraren aldaketak eta haien ekipamendua.

Horri dagokionez, egindako beste proba batzuen artean, azpiegituraren sorrera-plana idatzitako proiektuarekin alderatu zen, bi dokumentuetan eraikineko solairuaren egitura eta aurreikusitako osasun-zerbitzuak konparatuz.

Gainera, aztertutako azpiegituretako batzuk bisitatu ditugu, eta txostenean haien egungo egoerari buruzko argazkiak jaso ditugu.

Lan honek ez du jasotzen esleipena egiteko orduan, kontratazioa izapidetzean eta obra- eta laguntza-kontratuen aldaketetan legezketasuna betetzeari buruzko berrikuspenik.

Azpiegitura bakoitzari buruzko informazioa, bestalde, onetsi eta artxibatutako ebazpen administratiboen bitartez lortu dugu; honakoetatik lortu ere, hurrenkera kronologikoan: Osasun Departamentuko Idazkaritza Teknikoa, O-NOZen Gastuaren Kudeaketarako Zuzendariordetza eta kontabilitate-datuak.

Txostenerako muga bat itzan da ez direla ezagutzen Nafarroa 2012 Planaren jarraipen txostenetan jasotako informazio ekonomikoan sartu ziren gastu-kontzeptuak, azpiegitura bakoitzarenak; horrek, izan ere, eragotzi digu azaltzea zein izan diren informazio horren eta onetsitako egintza administratiboetako datu ekonomikoen arteko aldeen arrazoiak.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Bazardeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz. Lanaren inguruabarren eta helburuaren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaketa-probak eta prozedura tekniko guztiak bildu dira.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

- 2008-2014 aldian exekutatu diren inbertsioak

2008-2014 aldian, O-NOZen inbertsioak 237,94 eurokoak izan ziren, eta kontzeptu hauei dagozkie:

euroak, milakotan								
Kontzeptua	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira
Eraikinak	16.919	19.082	46.581	49.882	22.072	5.768	4.809	165.113
Osasun ekipamendua	11.294	3.723	4.483	3.903	5.247	3.344	2.492	34.486
Altzariak	3.320	2.075	1.520	1.615	608	700	2.234	12.072
Material teknikoa	10	1	6	5	6	0	227	255
Instalazioak	152	124	155	96	0	0	0	527
Ibilgailuak	52	13	0	0	0	0	0	65
Informazio-prozesuetarako eki- poak	1.067	950	759	327	522	272	1.267	5.164
Bestelako ibilgetu materiala	0	150	0	0	0	0	0	150
Ibilgetu ez-materiala	1.622	1.919	1.459	1.651	3.903	3.949	5.600	20.103
Inbertsioak, guztira	34.436	28.037	54.963	57.479	32.358	14.033	16.629	237.935
Guztizkoaren gainean (%)	14	12	23	24	14	6	7	100

2008-2014 aldian, O-NOZek 237,94 milioi euroko inbertsioak egin zituen guztira; horietatik, 165,11 milioi, ehuneko 69a, eraikinei eta bestelako eraikuntzei zegozkien. 2008tik 2014ra eskuratutako osasun ekipamendua 34,49 milioiko kostua ekarri zuen, eta ondasun higigarriek, berriz, 12,07 milioi eurokoa; aztertutako aldian egin diren inbertsio guztien ehuneko 14 eta ehuneko bost dira, hurrenez hurren.

Inbertsio guztien ehuneko 47 2010ean eta 2011n egin ziren; 2013an eta 2014an, berriz, egin-dako inbertsioek 2008-2014 aldiko inbertsio guztien ehuneko 13 egin zuten.

Inbertsioek ekitaldi bakoitzean exekutututako osasun gastuen ehuneko bi eta sei bitarte egin dute.

Oro har, zuzen kontabilizatu dira 2008tik 2014ra doan aldian egindako inbertsioak.

Ondasunen eta eskubideen inbentario orokorrean ez dira jasotzen lehendik zeuden eraikinetan egindako inbertsioak; izan ere, soilik jaso dira eraikitako azpiegitura berriei dagozkienak.

Ez dago ekipamendu medikoaren eta higigarrien inbentario baloratu eta gaurkoturik.

- Azpiegituren programazioa, exekuzioa eta funtzionamenduan jartzea

Osasun azpiegiturretan inbertsioak egiteko beharraren justifikazioa izan zen gaixoen laguntza-arreta hobetzea eta azpiegitura berriarekin hobekuntza funtzionalak lortzea, eraikinaren edukiera handitzearen, zaharkitutzat jotako instalazioak teknikoki hobetzearen eta osasun zerbitzu berriak ezartzearen ondorioz.

Eraikitako osasun azpiegiturek nabarmen handitu dituzte osasun zerbitzuak emateko lehendik zeuden espazioak.

Aztertutako inbertsioetan, ikusi da kasuko plan funtzionalean oinarrituta zeudela; plan hori ospitale-zentroko zuzendaritzak aurkeztua zen eta, adierazi bezala, inplikaturako osasun zerbitzuen profesionalen laguntzarekin taxututa zegoen.

Planean, honakoak finkatzen dira: eraikinaren eskakizun funtzionalak, eraikina zein lokaletan egituratuta dagoen, haren azalera, eskakizun teknikoak, instalazioen ezaugarriak eta ekipamendu higigarriaren nahiz klinikoaren xehetasunak.

Oro har, idatzitako proiektuak plan funtzionalaren jarraibideak betetzen zituen.

Aztertutako inbertsio gehienak baja esanguratsuekin esleitu ziren: lizitazio-prezioaren ehuneko 20 eta 30 bitartekoak.

Ia aztertutako obra guztietan, exekuzio-kostuaren desbideratzeak ez du ehuneko 10ean gainditu esleipen-prezioa.

Onetsitako obra-aldaketen justifikazioa da zenbait ustekabeko gertatu zirela, eta haiengatik neurketa eta unitate berriak behar izan zirela; horietako batzuen arrazoia izan zen lehendik zeuden eraikinetan egindako obrak, zeren eta eraikineko instalazio eta egitura-elementuak aurkitu baitziren. Aldaketa horiek, oro har, ez dute aldarazi eraikineko egitura; obra-zuzendaritzaren txosten teknikoetan oinarritutako aldaketak dira, eta O-NOZek onetsi ditu.

Nafarroako Ospitaleguna 2010ean sortu zen, eta hura sortzearekin proiektu batzuk aldatu ziren; horien artean nabarmentzekoa da, alde batetik, Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdiak bateratzea; izan ere, horrek hasiera batean Nafarroako Ospitalerako aurreikusita zegoen larrialdietako azpiegituraren kostua 6,16 milioi handitzea ekarri zuen. Hala-ber, nabarmentzekoa da Bideko Ama Birjina Ospitalean aurreikusitako laborategi klinikoak kentzea -1,39 milioi euroko kostua zuten-.

Ez dira amaitutako osasun unitate guztiak ekipatu; hori dela eta, ez dira funtzionamenduan hasi, behin eraikuntza amaitu ondoren ere. Gaur egun, aurreikusitako zerbitzuetako batzuk ez dira funtzionamenduan hasi: Nafarroako Ospitaleko C pabilioia, Tuterako kirurgia-eremuak -10,5 milioi euroko kostuarekin- eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia eremuak - 17,32 milioi euroko kostua izan zuten-.

Laborategiak, aldi baterako, Ikerketa Biomedikoko Zentroan jarri dira, nahiz eta instalazio horiek soilik ikerketarako egin ziren. Zentro horretako obrek -Biltegi Nagusia eta Liburutegia ere hartzen ditu- 18,11 milioi euroko kostua izan zuten, eta Europar Batasunaren 7,81 milioi euroko diru-laguntza finalista batekin finantzatu ziren.

Ez da funtzionamenduan jarri Nafarroako Ospitalean 2009an eraikitako dialisi-aretoa, zeinak zortzi monitorerentzako tokia duen; haren eraikuntzak eta antzeko ezaugarriak dituen beste areto batenak, biek batera, 380.137 euroko kostua izan dute.

- Osasun Departamentuaren Nafarroa 2012 Planaren azpiegiturak.

2008tik 2014ra doan aldian, Osasun Departamentuak 211,67 milioi inbertitu zituen, honako banaketaren arabera: eraikinak (165,11 milioi), ekipamendu medikoa (34,49 milioi) eta altzariak (12,07 milioi). Inbertsio horien ehuneko 63 -133,03 milioi- programatuta dauden eta Nafarroa 2012 Planean onetsi ziren azpiegiturei dagozkie.

Hurrengo taulan, Nafarroa 2012 Planean Osasun Departamenturako programatutako azpiegituren exekuzioa alderatzen dugu plan horretan onetsitako aurreikuspenekin.

Kontzeptua	2008 aurreikuspena	2014-12-31n betetako gastua	Hasierako planaren aurreikuspenaren gaineko exekuzioa (%)
Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoa	49.031.600	95.850	0,20
Nafarroako Ospitaleko C Pabiloia	29.972.000	27.027.097	90
Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia eremuak	21.400.000	18.722.103	87,5
Nafarroako Ospitaleko Larrialdiak	19.727.000	25.637.632	130
Ubarmin Klinikako kirurgia eremuak	11.527.000	9.738.455	84,5
Tuterako osasun barrutiko kirurgia eremuak	10.650.000	11.704.124	107
Zentro Psikogeriatrikoko Plan Zuzendaria	9.200.000	719.472	8
Bideko Ama Birjina Ospitaleko ama-haurrentzako larrialdiak	8.600.000	8.592.866	99,9
Buztintxuriko eta San Adriango osasun zentroak	8.154.000	9.554.257	117
Nafarroako Ospitaleko Ikerketa Zentroa	22.413.000	21.146.080	94
Irudi Medikoaren Zentro Nazionala	18.710.700	95.052	0,5
Programatutako inbertsioak, guztira	209.385.300	133.032.988	63,5

Exekutututako gastuak ekipamendu kliniko eta altzariak jasotzen ditu. Ez dakigu zein kontzeptu erabili ziren 2008an Nafarroa 2012 Planeko aurreikuspenetan, ez eta nola kalkulatu ziren ere, programatutako osasun azpiegiturei dagokienez.

Nafarroa 2012 Planean programatutako osasun-azpiegiturako inbertsioen betetzea hasiera batean 2008-2011 aldian Osasun Departamentuan lehentasunezko jarduketak egiteko aurreikusita zegoen 209.385.300 euroko kopuruaren ehuneko 63,5 da.

Nafarroa 2012 Planaren arabera, azpiegituren finantzaketa segurtatuta zegoen zenbait baliabide publiko mugiaraztearen bitartez, "finantzaketa iraunkorra" izatearen baldintzapean, etorkizuneko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan tentsiorik eraginen ez lukeen neurrian. Nafarroa 2012 Planean jasotako inbertsioak planifikatu eta programatu egin ziren, planak berak erakusten duen bezala, krisi ekonomikoaren eragina jada aintzat hartu zeneko agertoki batean.

Honakoa zen O-NOZen azpiegiturak egiteko aurreikusita zegoen 209,38 milioi euroko kopururako aurreikusita zegoen finantzabidea:

- 119,23 milioi, 2008-2011 ekitaldietako Nafarroako aurrekontu orokorrekin.
- 71,44 milioi aurreko ekitaldietako superabitarekin.
- 18,71 milioi Estatuarekiko hitzarmen batekin.

Hala eta guztiz ere, krisi ekonomikoa sakonagoa izan zen 2008ko ekitaldian aurreikusitakoa baino, orduan onetsi baitzen Nafarroa 2012 Plana, eta ezin izan zen lortu hartan programatutako inbertsioak egiteko aurreikusitako finantzaketa guztia.

Gobernuak onetsitako aurrekontu-doikuntzek, besteak beste, beraiekin ekarri zuten inbertsioak murriztea eta hasieratik onetsita zegoen gastu-banaketaren egozpena ondorengo ekitaldiei egozteak. Horrek eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeko konpromisoek ekarri zuten atzerapen nabarmenak gertatzea inbertsioen exekuzioan eta haien ekipamenduan, bai eta, horrenbestez, haiek funtzionamenduan jartzean ere; halaber, honakoak eragin zituzten: eraikitako zerbitzu eta unitate batzuk ezin irekitzea eta tamaina handiko proiektu batzuk –medikuntzako gune teknologikoa, zentro psikogeriatrikoa, irudi medikoaren zentroa eta Tuterako Ospitaleko kirurgia blokearen II. fasea– geraraztea edo haien exekuzioa geratzea.

Nafarroa 2012 Planean programatutako azpiegituren betetzea hiruhileko jarraipen txostenetan jasota zegoen. Azkeneko jarraipen txostena 2012ko abenduaren 31koa da eta Gobernuaren 2013ko otsailaren 27ko erabakiaz onetsi zen.

Txosten horietan Nafarroa 2012 Planeko osasun azpiegituretan egindako gastuari buruz islatutako informazioa ez dator bat ez kontabilizatutako datuekin, ez eta azpiegiturak direla-eta izapidetutako egintza administratiboei dagozkien datu ekonomikoekin ere, txosten honetako eranskinek taulan ageri den bezala.

Hona gure gomendioak:

- *Finantzaketa bideragarria duten inbertsioei ekitea, haiek behar den epean exekutatzeko, eta kasuko azpiegitura amaitu ondoren funtzionamenduan jartzea. Horri dagokionez, inbertsioak ondoz ondo egiteko aukera aztertzea, eta behin inbertsioa amaitu eta azpiegitura funtzionamenduan jarrita, beste proiektu bati ekitea. Badirudi aukera hori gomendagarriagoa dela inbertsio bat baino gehiago epe laburretan eta are aldi berean ere hastea baino, haien amaitzea eta abian jartzea geroko utzita.*

- *Gutxi erabilitako azpiegituren mantentzea saihestea, dela ekipamendu faltarengatik, dela beste arrosi batzuegatik; horixe da zortzi monitoretarako gaitasuna duen hemodialisi aretoaren kasua.*

- *Inbertsio planetako inbertsioei buruzko aurreikuspenei eta exekuzioari buruzko zenbateko ekonomikoak oinarritzea, Nafarroa 2012 Planaren ildotik.*

- *Administrazioaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatu eta eguneratu bat onestea, eta hura kontabilitatearekin lotzea.*

Horrenbestez, jotzen dugu ezen, 2008-2014 aldian, inbertsio-ahalegin handia egin dela Osasun Departamentuan, gaixoei ematen zaien laguntza hobetzera bideratua, osasun-zuzkidura eta -azpiegiturak eginez; izan ere, horiek, behin funtzionamenduan jarrita, gaitasunaren handitzea eta hobekuntza teknikoak ekarri dituzte, lehenago zeuden eraikin eta osasun zerbitzuen aldean. Krisi ekonomikoak atzerapen bat ekarri zuen azpiegitura horietan, eta Nafarroa 2012 Planean onetsitako lehentasunezko jarduketara batzuen geraraztea ere ekarri zuen. Halaber, ekipamendu ezak atzerapen nabarmenak ekarri ditu azpiegitura berrien unitate eta zerbitzuak funtzionamenduan jartzerakoan.

V. BERRIKUSITAKO OSASUN AZPIEGITURAK

Ondoren, berrikusi ditugun osasun azpiegituretako inbertsioak aztertuko ditugu, programaziotik hasi eta exekutatu eta funtzionamenduan jarri diren arte.

V.1 NAFARROA 2012 PLANEAN ONETSITAKO INBERTSIOAK

Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoa

Nafarroa 2012 Planak 49.031.600 euroko inbertsio bat aurreikusten zuen medikuntzako gune teknologiko batean: goi erresoluzioko zentro batek eta zentro teknologiko batek osatuko zuten.

2010eko maiatzean, Nafarroako Gobernuak baimena eman zion O-NOZi medikuntzako gune teknologikoaren proiektuaren idazketa kontrata zezan. Urte berean, 1.200.000 euroko gastu bat baimendu zen eta esleipen-prozedura hasi zen.

Hala eta guztiz ere, 2011ko irailean, espedientearen izapidetzea amaituta eta esleipenaren ebazpena ematea baizik falta ez zenez, Nafarroako Gobernuak proposatu zuen, gastuak gutxitzeko neurri gisa eta aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen eraginetarako, proiektuaren idazketa esleitzeko prozedura ezestea eta erreserbatutako kopurua, 1.200.000 euro, libe-ratzea.

Azpiegitura hori dela-eta guztira exekutatu den gastuak 95.850 euro egiten du. Gastu hori 2010eko aurreproiektuaren idazketari dagokio. Nafarroa 2012 Planak, 2012ko abenduaren 31rako, 700.000 euroko gastua jaso zuen.

Proiektua gerarazita dago.

Nafarroako Ospitaleko "C" pabilioia birmoldatzea





Inbertsio hori Nafarroa 2012 Planean jasota dago, 29.972.000 euroko aurrekontuarekin. Helburu zuen zerbitzuak birdimentsionatzea eta solairuetan zabalera handiagoa lortzea, ospitaleratze-baldintzak, laguntza anbulatorioa eta gaixoei eta familiei arreta emateko espazioak, esate baterako onkologia arloan, hobetze aldera.

2014an, Nafarroako Ospitaleko Zuzendaritzak beharizanen plan funtzional bat aurkeztu zuen, non proposatu baitzuen pabilioi berriak honako zerbitzu eta unitateak har zitzala:

- Beheko solairua: Ospitaleratzerik gabeko Kirurgia eta Anestesia Unitatea (UCASI), Minaren Unitatea, Digestio Zerbitzuko Endoskopien Unitatea, Egonaldi Zeroko Unitatea eta Eguneko Ospitale Onko-hematologikoa.
- Lehenengo solairua: Zainketa Intentsiboen Unitatea (ZIU) eta bi ebakuntza-gela berri.
- Bigarren solairua: Barne Medikuntza eta Endokrinologia Zerbitzuaren ospitaleratzea eta bulegoak.
- Hirugarren solairua: Laguntza Onkologiko Zerbitzuaren eta Hematologia Zerbitzuaren ospitaleratzea eta bulegoak.

Proiektuaren idazketa 2014an esleitu zuen, plan funtzionalari jarraituz; exekuzio materialerako kalkulaturako aurrekontua 13.309.732 eurokoa zen (ez dira hor sartzen gastu orokorretarako eta etekin industrialerako ehuneko 15a, ez eta BEZa ere).

2007an, proiektua idazteko kontratua aldatu zen, eta 21.938.448 euroko exekuzio materialeko aurrekontua biltzen zuen proiektu bat onetsi zen. Exekuzio-aurrekontuaren igoera nabarmen hori honako alderdiekin justifikatu zen:

- Hasierako aurreikuspenak hobeki definitzea.
- Transformazio elektrikoko gune bat eta hotza eta beroa ekoizteko instalazio-zentralak jasotzea.
- Ondoko eremuetan eta pabilioiaren inguruan jarduketak egitea.
- Jarduketa-azalera 13.896 m²-tik 17.270 m²-ra igotzea.
- Eraikuntzaren kode teknikoa aplikatzea, 2007tik aurrera; horrek eragin zuen proiektuan aurreikusi gabeko osagai batzuk sartu behar izatea.

Aldaketak berarekin ekarri zuen proiektua idazteko ordainsariak 81.581 euro handitzea eta zuzendaritza fakultatiboarenak, berriz, 93.223 euro handitzea; zuzendaritza-lan hori proiektua idatzi zuen lantalde berak eginen zuen.

C pabilioi berriaren kostua 27,03 milioi eurokoa izan zen, hura funtzionamenduan jartzeko behar zen ekipamenduaren zati bat jarri gabe ere; honako kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	Betetako gastua
Proiektua	700.000	564.707	2004	81.581	2007	646.288
Obra zuzendaritza	645.293	645.293	2008	102.611	2011	747.904
Obra	29.325.920	23.555.527	2008	611.740	2009 2011 2013	24.451.286
Ekipamendu orokorra	876.808	699.018(1)	2014			850.762
Ekipamendu kliniko	364.965	277.667	2013 2014			277.667
Beste gastu batzuk						53.190
Inbertsioa, guztira						27.027.097

(1) Loteka eskuratutako ekipamenduari dagokio; ez du jasotzen eskarien bidez eskuratutakoa

Desbideratze ekonomikoak eta obra-exekuzioaren epeenak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera data (zuinketa-akta)	2008ko azaroaren 10a
Obrarako aurreikusi den amaiera (36 hilabete)	2011ko azaroaren 10a
Epearen luzapena (3 hilabete)	2012ko otsailaren 10a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2012ko abuztuaren 28
Obra-exekuzioaren desbideratzea	6 hilabete
Funtzionamenduan jartzea (partziala)	2014ko ekaina-azaroa
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	Urte 1 eta 9 hilabete
Lizitazioaren zenbatekoa	29.325.919
Adjudikazioaren zenbatekoa	23.555.527
Esleipenaren baja	% 20
Exekuzioaren zenbatekoa	24.451.286
Hasierako esleipenaren desbideratzea	% 4

C pabilioia berritzeko obrak 2012ko abuztuan amaitu ziren, esleitutako exekuzio-epetik sei hilabeteko atzerapenarekin. 2013an eta 2014an 1.128.290 euro egin zuen ekipamendua eskuratu zen, eta 2015ean, hiru milioi euro inguruko ekipamendua esleitu zen.

2014ko ekainean, Onkologiako eguneko ospitalea hasi zen lanean, eta urte bereko azaroan, ospitaleratze-solairuak ireki ziren.

Honakoak, berriz, ez dira funtzionamenduan hasi, ekipamendu falta dela eta: endoskopieta-rako unitatea, ZIUa, bi ebakuntza-gelak eta egonaldi laburreko unitateak.

Obra exekutatu bitartean, 611.740 euro egin zuten aldaketak onetsi ziren; horien artean, nabarmentzekoak dira ZIUaren boxetako ate automatikoak eta ebakuntza-gela bateko Faraday kai-ola bat, bai eta C pabilioiaren urbanizazioa Nafarroako Ospitaleguneko urbanizazio proiektuari egokitzea ere; horrek guztiak 417.116 euroko kostua izan du.

2010ean BEZ tasa ehuneko 16tik ehuneko 18ra igotzeak berarekin ekarri zuen 284.019 euroko gastu osagarria izatea.

Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia eremuak birmoldatzea

Obra hau Nafarroa 2012 Planean jasota dago, 21.400.000 euroko hasierako aurrekontuarekin. Aurreikusita dago hiru solairuko eraikin berri bat egitea kirurgia-bloke zentralizatu bat jartzeko, zortzi ebakuntza-gelarekin –orain baino hiru gehiago–, zainketa intentsiboen unitate batekin (ZIU), anesthesiaren ondoko bizkortze unitate batekin (AOBU) eta laborategi zentraletan.

Zentroko zuzendaritzak 2006an aurkeztutako plan funtzionalean, inbertsio horren beharra justifikatzeko aipatzen zen ebakuntza-gelak barreiu egoteari, kritikoen arloari eta instalazioen zahartasunari irtenbide bat bilatu behar zitzaizela; izan ere, instalazio horietako batzuek hogeita hamar urte baino gehiago zituzten eta, batzuetan, ez zuten sektoreko araudia betetzen.

Proiektuaren proposamen teknikoa plan funtzionalean oinarritzen da, eta honako zuzkidurak jasotzen ditu:

Lantokia	Zerbitzuak	Eraikitako azalera
Lehena	Kirurgiako blokea, esterilizazioa, Anesthesiaren Ondoko Bizkortze Unitatea, laborategiak	4.983
Bigarrena	Instalazioak	2.254
Hirugarrena	ZIU	1.983
	Azalera eraikia, guztira	9.220

2007an idatzitako aurreproiektuan, ZIUa bigarren solairuan jartzen zuen eta instalazioak, berriaz, hirugarrenean.

Hurrengo tauletan, inbertsio horren izapidetzeari buruzko datu ekonomikoak eta jarduketan datak azaltzen ditugu.

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	2014-12-31n betetako gastua
Aurreproiektua			2007			51.620
Proiektua	1.228.123	614.061	2008	80.607		694.668
Obra zuzendaritza	1.228.123	614.061	2010	35.188	2011	649.249
Obra	23.157.739	16.211.575	2010	602.351	2012 2013	17.324.266
Ekipamendu orokorra						0
Ekipamendu klinikoa						0
Beste gastu batzuk						2.300
Inbertsioa, guztira						18.722.103

	Obra
Obraren hasiera-data (hasierako baimenaren jakinarazpena)	2010eko ekainaren 28a
Obrarako aurreikusi den amaiera (35 hilabete)	2013ko maiatzaren 29a
Epearen luzapena (12 hilabete)	2014ko maiatzaren 29a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2014ko abenduaren 12a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	6 hilabete eta erdi
Abian jartzea	Ez da oraindik ere funtzionatzen hasi
Lizitazioaren zenbatekoa	23.157.739
Adjudikazioaren zenbatekoa	16.211.575
Esleipenaren baja	% 29,9
Exekuzioaren zenbatekoa	17.324.320
Hasierako esleipenaren desbideratzea	% 6,8

Obrak 2014ko abenduaren 12an jaso ziren, eta gaur den egunean zuzkidura berrietatik bakarra ere ez da funtzionamenduan jarri: ebakuntza-gelak, zainketa intentsiboko unitatea eta anesteziaren ondoko bizkortze unitatea ekipamenduaren zain daude. 2015eko hasieran, 850.000 euro inguru egiten zuen ekipamendua esleitu zen.

2012an, obra-aldaketa bat onetsi zen, 602.351 eurokoa; zenbateko horretatik, 420.151 euro eskaileraren berritzeari eta oheetarako igogailu berri bati zegozkien.

2013an, kontusail berriak sartu ziren, 2.695.575 eurokoak, eta exekuzio epea 12 hilabetez luzatu zen; kontusail horiek konpentsatzeko ia kopuru bera egiten zuten beste kontusail batzuk kendu ziren. Honakoak ziren kopuru handieneko aldaketak:

	Prezioa
Oheetarako igogailu berriak	523.824
Ebakuntza-gelen sistema aldatzea	396.985
Behe-solairuaren klimatizazioa	317.639

Kendutako kontusaileri dagokienez, kopuru handienekoak hasierako proiektuan aurreikusitako laborategiei dagozkie: 1.390.293 euro egiten dute. O-NOZek, kontusail horiek kentzea justifikatzeko, aipatu zuen ez zuela zentzurik Bideko Ama Birjina Ospitalerako laborategi batzuk egitea,

zeren eta Ospitaleguna sortzerakoan zeuden aurreikuspenen arabera ospitaleetako laborategi klinikoak batu egingen baitziren.

Halaber, 2013an, 865.435 euroko aldaketa bat onetsi zen, anesthesiaren ondoko bizkortze unitatea berregokitzeko; aldaketa hori jatorrizko proiektutik ordeztutako edo kendutako kontusailekin konpentsatu zen, eraikuntzak ez zezan interferentziari sor ZIU zaharraren funtzionamenduan. Horretarako, 32.158 euroko kostua izan zuen proiektu osagarria egin zen.

2010ean eta 2012an BEZ tasan izan ziren egoerek beraiekin ekarri zuten 500.000 euro inguruko gastu osagarria izatea.

Obrak exekutatuzko proiektua eta hasierako planak aurreikusten zuten obran ondoz ondo honako sekuentziari jarraitzea, fasez fase obrak amaituz eta ekipatuz:

Faseak	Obrak
I. fasea	Ebakuntza gelak eta ZIU berria
II. fasea	Laborategi berriak
III. fasea	AOBU
IV. fasea	Aurreko hiru faseek bat egiten duen espazioak birmoldatzea.

Laborategiak batu eta haien Ikerketa Zentroan kokatuta, haien exekuzioa baztertu zen, eta behin I. fasea amaitu ondoren, ekipamendua falta bazen ere, AOBUa egiteari ekin zitzaion.

Nafarroako Ospitaleko Larrialdietarako eraikina



Nafarroa 2012 Planak aurreikusten zuen larrialdietako eraikin berri bat egitea, lau solairukoa, bi sarbide independenterekin. Eraikin horretan, larrialdietako zerbitzua jarriko zen. Espazioa 1.300 m²-koa izatetik 3.000 m² baino gehiago izatera pasatuko zen, behaketa eremu batekin, ebakuntzetarako eremu batekin eta ospitaleratzarako eremuarekin. Sotoan scanner bat izanen zuen, eta eraikineko teilatu lauan heliportua jarriko zen. 19.727.000 euroko aurrekontua ezartzen da.

Nafarroako Ospitaleko zuzendaritzak 2006ko urrian aurkeztutako plan funtzionalean, ospitale-zentro horren larrialdietako zerbitzuaren arazoa konpontzeko egiturazko beharrak eta zuzkidura-beharrak aurreikusten ziren.

2008ko abenduko exekuzio-proiektuaren arabera, eraikinak 11.330 m²-ko azalera izanen zuen, eta bertan, larrialdietako eremu berriak beheko solairua eta sotoa hartuko zituen, bai eta lehenengo solairuaren zati bat ere. Proiektuak ez ditu ez definitzen, ez garatzen gainerako solai-

ruen etorkizuneko erabilerak; solairu horiek egituratuta eta diseinatuta daude ebakuntza-gelagisa eta ospitaleratzearako erabiltzeko.

2009ko martxoaren 15ean (obra-proiektua onetsi eta bi hilabete geroago eta haien kontratazko prozedura hasita), Nafarroako Parlamentuak eskatuta, Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko osasun langileen arduradunek osatutako batzorde batek bi ospitaleen larrialdi zerbitzuen bateratzea aztertu zuen, eta ondorioztatu zuen hasierako proiektuko eremu batzuk zabaldu egin behar zirela, eta bi ospitaleak lur-azpitik elkarrekin komunikatzeko beharra zegoela.

2009ko abuztuan, obrak esleitu ziren, hasierako proiektuari jarraituz; izan ere, proiektu horrek ez zuen aurreikusten Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdi zerbitzuak bateratzea. 2010eko abenduan, proiektuaren honako aldaketa hauek onetsi ziren, aipatu zerbitzuetako bateratzeari egokitzeko:

- Eraikina handitzea, 2.881.729 euroko aurrekontuarekin.
- Komunikazio-galeria bat egitea, 5.180.303 euroko aurrekontuarekin.

Bi jarduketa horiek 2011ko maiatzean esleitu zitzaizkion eraikinaren obra egin zuen kontratistari; lehenengoa hasierako obra-kontratuarekiko ehuneko 30eko beherapenarekin; galeriaren obra osagarriko, berriz, ehuneko 20ko beherapena lortu zen.

BEZ tasan izan zen igoerak 256.540 euroko gastua ekarri zuen. Gainera, obra-likidazioaren gastu osagarri bat onetsi zen, 156.110 eurokoa.

Azpiegitura honen guztizko kostua, ekipamendua barne, 25.637.632 eurokoa izan zen, eta honako kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	2014ra arte exekututako gastua
Larrialdietako obrarako proiektua (1)	550.000	385.000	2007	192.259	2008 2009	577.259
Larrialdietako obrarako zuzendaritza (1)	429.259	429.259	2009	116.254	2011	521.361
Larrialdietako obra	22.467.278	15.727.094	2009	2.017.210	2011 2013	18.156.955
Galeriako obra	5.180.303	4.138.018	2011			4.111.330
Beste gastu batzuk						24.075
Altzariak			2013 2014			604.806
Ekipamendu medikoa			2013 2014			1.641.845
Inbertsioa, guztira						25.637.632

(1) Aldaketetan, bai proiektuarenean, bai zuzendaritzarenean, galeriaren obrari dagozkionak sartzen dira.

Desbideratze ekonomikoak eta larrialdietako eraikinaren exekuziorako eta funtzionamenduan jartzeko epean izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Larrialdietako eraikina	Lur azpiko galeria
Obraren hasiera-data	2009ko azaroaren 11	2011ko uztailaren 20a
Obrarako aurreikusi den amaiera	2011ko irailaren 11	2012ko uztailaren 20a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2012ko abuztuaren 29	2012ko azaroaren 21a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	11 hilabete eta erdi	4 hilabete
Abian jartzea	2014ko urriaren 8a	2012ko azaroaren 21a
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	2 urte eta hilabete bat	
Lizitazioaren zenbatekoa	22.467.278	5.180.303
Adjudikazioaren zenbatekoa	15.727.094	4.138.018
Esleipenaren baja	% 30	% 20
Exekuzioaren zenbatekoa	18.156.955	4.111.330
Hasierako esleipenetik izan den desbideratzea, zabalkun-dea kenduta	% 15,4	% -0,6
Desbideratzea, zabalkundea barne	% 2,6	

Larrialdietako zerbitzua obra jaso eta bi urte geroago hasi zen lanean. Zerbitzu horretarako bai ekipamendu medikoa bai altzarien ekipamendua 2012ko abuztuan amaitua, 2013an eta 2014an amaitu zen.

Ubarmin Klinikako kirurgia eremuak birmoldatzea



Nafarroa 2012 Planak 11.527.000 euroko aurreikuspen bat jasotzen zuen kirurgia eremu baterako; Ubarmin Klinikari honakoak egon ziren: zortzi ebakuntza-gela (lehenago, lau zeuden) esnatzeko areto bat eta ZIU bat.

Kirurgia eremua birmoldatzeko proiektu bat jasota dago, 2001n esleitua eta 2002an aldatua; proiektu hori 2003an onetsi zen, eta 181.657 euroko kostua izan zuen. Kirurgia blokea bera eta obra osagarri batzuk egitea jasotzen zuen, 6.448.019 euroko guztizko aurrekontuarekin.

O-NOZek erabaki zuen proiektu osoa ez exekutatzeko, eta guztizko obraren separaten arabera egitea.

2008ko maiatzera arte, orduan onetsi baitzen Nafarroa 2012 Plana, honako separatak exekutatuta zeuden: 1. Zainketa Intentsiboko Unitatea. 2. Hirugarren solairua eta sukaldea. 3. Larrialdietarako eskailera berria. Anbulantzien sarbideak egiteko 4. separata eta bide errepede berriari

zegokion 5. separata exekutatzen ari ziren. Exekutatzeke gelditzen zen 6. separata, kirurgia-blokeari dagokiona.

O-NOZek erabaki zuen kirurgia eremuko obra osoa amaitzea, 2003an onetsitako proiektuari jarraituz. Proiektua onetsi zenetik igarotako denbora zela-eta, proiektua eguneratu egin behar izan zen.

Kirurgia eremuko inbertsioaren guztizko kostua (6. separata) 9,74 milioi eurokoa izan zen, eta honakoei zegokien:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	2014-12-31n betetako gastua
Proiektua (4., 5. eta 6. separatik)				52.320
Obrarako zuzendaritza (6. separata)				321.445
Obra (6. separata)	8.296.497	6.471.301	2009	6.545.620
Ekipamendu medikoa	2.885.000	2.578.445		2.819.070(1)
Inbertsioa, guztira				9.738.455

(1) Eskari bidez eskuratutako ekipamendua biltzen du

Desbideratze ekonomikoak eta kirurgia eremuaren exekuziorako eta funtzionamenduan jarzteko epean izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera data (zuinketa-akta)	2009ko irailaren 21a
Obrarako aurreikusi den amaiera (20 hilabete)	2011ko maiatzaren 21a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2011ko irailaren 1
Obra-exekuzioaren desbideratzea	3 hilabete
Abian jartzea	2013ko otsaila
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	Urte 1 eta 6 hilabete
Lizitazioaren zenbatekoa	8.296.497
Adjudikazioaren zenbatekoa	6.471.301
Esleipenaren baja	% 21,9
Exekuzioaren zenbatekoa	6.545.620
Hasierako esleipenaren desbideratzea	% 1

2010ean, kirurgia-blokearen obra-proiektuaren aldaketa bat onetsi zen, ezustekoen ondorioz obra-unitate berri batzuk izan baitziren, 431.992 euroko gastua zekartenak; kopuru bera egiten zuten gutxitzeen bitartez konpentsatu ziren horiek.

BEZ tasan izan zen igoerak 79.321 euroko gastua ekarri zuen.

Obra 2011ko irailean amaitu zen, eta ekipamendua 2012ko urritik azarora jaso zen.

Tuterako osasun barrutiko kirurgia eremuen birmoldatzea

Tuterako Reina Sofia Ospitaleko kirurgia eremuen birmoldatzeak, Nafarroa 2012 Planean 10.650.000 euroko aurrekontuarekin jasotakoak, aurreikusten du bi erditze-gela berri eraikitzea, sei izateraino, ebakuntza-gelak lautik zazpira igotzea, kirurgia handi anbulatoriorako beste birekin, bizkortze eta zainketa berezien unitate bat egitea, endoskopietarako bi areto eta esterilizazio areto bat egitea.

O-NOZek obra hori justifikatu zuen kirurgia eremua beharkizun funtzional eta normatiboegi egokitzeko beharrarengatik, osasun zerbitzu batzuetarako azalera handitzeko beharrarengatik eta beste zerbitzu batzuk sortzeko beharrarengatik –endoskopietarako arloa eta ospitaleratzetik gabeko kirurgia unitatea–, horren bidez erantzuna eman ahal izateko artatutako populazioaren handitzeari eta laguntza-premia berriei.

Beharrizanei buruzko azterlan bat jasota dago, 2008koa, non aipatzen baita Tuterako Ospitalea, 1980an sortu eta 1986an inauguratu zenak, instalazio zaharkituak dituela, eskaria artatzeko gaitasun mugatua duela eta aurrerapen teknikoak falta dituela.

Aurreikusitako jarduketa eremuek beheko solairua gehi beste bi solairuko egitura bat hartzen dituzte, eta honakoak dira: kirurgia eremua, erditzeen eremua, bizkortzerako eta zainketa berezietarako unitatea, esterilizazio zentrala, endoskopien eremua, kirurgia txikia, ospitaleratzetik gabeko kirurgiaren unitatea eta anestesia ondoko bizkortzerako unitatea.

Erabaki zen obrak bi fasetan egitea, eta aurreproiektu bat erredaktatu zen, aurreikusitako jarduketa osoa –I. eta II. faseak– hartzeko.

- I. fasea: eraikin berri bat egitea, eraikin zaharrerako sarbidea duena. Beheko solairuan, erditze-gelak, ebakuntza gelak eta anestesia ondoko bizkortzerako unitatea izanen lituzke. Lehengo solairuan, esterilizazioa jarriko litzateke, eta bigarrean, berriz, klimatizatzaileak eta eguzki-plakak.

- II. fasea: eraikin zaharren birmoldatzea, behin I. fasea amaituta eta eraikin berrira aldatutako zerbitzuak jarduteko moduan daudenean. Bizkortzerako eta zainketa berezietarako unitateari, endoskopien-eremuari eta kirurgia anbulatorioari dagokie. Aurreikusita zegoen 2011ko amaieran hasia.

Eraikin zaharra birmoldatzeko II. fase honi ez zaio ekin, aurrekontuan dirurik ez egoteagatik. Gerarazita dago, eta dagokion proiektua ere ez da idatzi.

I. fasean eraikitako azpiegitura ekipatu gabe dago, esterilizazio-aretoa izan ezik; horrenbestez, ez da funtzionamenduan hasi. Esterilizazio aretoa ere, 2012tik ekipatuta dagoen arren, ez da funtzionamenduan hasi.

I. fasearen guztizko kostua, ekipamenduaren zati bat oraindik ere falta dela, 11.704.124 eurokoa izan da, eta honako kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketa- ren urtea	Betetako gastua
Aurreproiektua (I. eta II. faseak)	160.000	112.000	2008			112.000
Obra proiektua (I. fasea)	240.000	168.000	2008			168.000
Obraren zuzendaritza (I. fasea)	400.000	284.828	2008			284.828
Obra (I. fasea)	13.461.859	10.500.250	2010	Kostua, 0	2010 2011 2012	10.500.250
Ekipamendu medikoa	640.000	639.046	2011			639.046
Ekipamendu medikoa eta orokorra	2.022.000	1.703.848	2014			0
Inbertsioa, guztira						11.704.124

Desbideratze ekonomikoak eta obraren exekuziorako eta funtzionamenduan jartzeko epean izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera-data	2010eko uztailaren 15a
Obrarako aurreikusi den amaiera (20 hilabete)	2012ko martxoaren 15a
Epearen luzapena (4 hilabete)	2012ko uztailaren 15a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2012ko abuztuaren 31
Obra-exekuzioaren desbideratzea	Hilabete eta erdi
Abian jartzea	Ez da oraindik ere funtzionatzen hasi
Lizitazioaren zenbatekoa	13.461.859
Adjudikazioaren zenbatekoa	10.500.250
Esleipenaren baja	% 22
Exekuzioaren zenbatekoa	10.500.249
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea	% 0

Obra 2012ko abuztuaren 31n jaso zen. 2015eko hasieran, ekipamendua esleitu zen, 1.699.685 euroko prezioan.

Obraren exekuzioa bitartean, hiru aldaketa onetsi ziren, zeinek ez zuten beraiekin ekarri esleipen-prezioa handitzea, zeren eta kontusail berrien 3.237.332 euro konpentsatu baitziren zenbateko bera egiten zuten neurketetan, eta obrak exekutatzeko epea lau hilabetez luzatu baitzen. Aldaketen artean, nabarmentzekoak dira egitura osoaren altzairuari, fatxadako txapa lakatuaren estalkiari eta hormetako konpaktuan erabilitako panelari dagozkienak.

Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren plan zuzendaria.

Nafarroa 2012 Planak 9.200.000 euroko inbertsio bat aurreikusten du zentro psikogeriatrikoaren plan zuzendarirako; horren helburua da zerbitzuen eta tresnen eskaintza berri bat garatzea osasun mentalaren saretik: eguneko ospitaleratze partziala psikogeriatrian, laguntza ambulatorioa, lanerako terapiako programa berariazkoak eta egonaldi ertaineko programak –zainketei jarraipena ematekoak–.

Plan zuzendari baten erredakzioa justifikatu zen plan estrategikoak definitutako beharrak arkitectura-eredu batean islatzeko beharrezkoak, horren bidez beharrezko funtzionalak ebatzi eta zentroaren berritzea errazteko, jarduketako ondoko ondoko fasetan, eraikin berriak egitearen edo lehendik daudenak zaharberritzearen edo ordeztearen bidez.

Plan zuzendariak 65.500.280 euroko guztizko aurrekontua dauka honako obra hauetarako:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa
1. eremua: Psikiatria-errehabilitazioa	25.187.720
2. eremua: Psikogeriatria-Lanerako terapia	24.782.300
3. eremua: Zerbitzu zentral eta orokorrak	10.813.860
4. eremua: Instalazioen zentralizatzea	4.432.640
5. eremua: eraispen independenteak	283.760
Plan zuzendaria, guztira	65.500.280

Hasitako lehenengo jarduketa psikiatria eremuko da, bertan bi pabilioi oso egin baitira, bi fasetan.

Aurreproiektu bat idatzi zen, pabilioiek ondoko eraikinekin eduki beharreko harreman funtzionala eta konexioak eta instalazio orokorren kokapena bezalako gaiak ebazteko, besteak beste. Aurreproiektuak honako faseak eta aurrekontua finkatu zituen:

I. fasea: Pabilioi longitudinala	7.933.560
II. fasea: Zehar-pabilioia	3.988.560
I. fasea eta II. fasea, guztira	11.922.120
Gainerako pabilioiak (4)	10.903.155

Zentro psikogeriatrikoa dela-eta honako inbertsioak egin dira:


Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Betetako gastua
Laguntza teknikoa	90.000	90.000	2008	90.000
Plan zuzendaria eta barne eraberritzeko plan berezia	100.000	74.991	2009	75.250
Aurreproiektua eta proiektua (I. eta II. faseak)	500.000	350.000	2010	356.229
Obraren zuzendaritza (I. eta II. faseak)	500.000	350.000	2010	4.725
Obra (I. eta II. faseak)	12.683.939	11.035.027	2014	145.274
Beste gastu batzuk				47.994
Inbertsioa, guztira				719.472

2008an, laguntza teknikoa kontratatu zen plan zuzendari bat egiteko. 90.000 euro ordaindu ziren. Kontratu horren beharrezko arrazoiak zentroko osasun prestazioak hobetzea zen. Laguntza hori plan zuzendaria egiteko faseetan euskarri teknikoa eta administratiboa ematean zetzan.

San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoaren Plan Zuzendariak 59.993 euroko kostua izan zuen.

Aurreproiektuaren eta proiektuaren idazketa 2010ean esleitu zen. Aurreproiektua 2011n onetsi zen; proiektua, berriz, 2013an. Obren hasiera 2013an zegoen aurreikusita. 2014an esleitu ziren, 11.035.027 euroko prezioan, lizitazio prezioaren gaineko ehuneko 13ko beherapenarekin eta 22 hilabeteko exekuzio-eparearekin. 2014ko abenduaren 31n, 145.274 euro exekutatu dira.

Bideko Ama Birjina Ospitaleko ama-haurrentzako larrialdiak



Nafarroa 2012 Planean, bi altuerako eraikin bat egitea aurreikusi zen, 8,6 milioi euroko aurrekontuarekin.

Ama-haurrentzako larrialdietako inbertsio horren helburua zen bertan gertatzen ziren laguntza- eta funtzionamendu-arazoei konponbidea ematea, 2007ko larrialdietako plan funtzionalean jaso bezala.

Proiektua idazteko oroit-idazkian aipatzen den bezala, Bideko Ama Birjina Ospitaleak Pediatriako eta Ginekologia-Obstetriziako larrialdien eremu bat zeukan, zeina ez baitzen nahiko gertatzen espezialitate horietako eguneroko larrialdien eskarirako.

Ama-haurrentzako larrialdien zerbitzuak birkokatu eginen ziren, alde batetik, amentzako eraikinari itsatsitako eraikin-bolumen berri batean –erdi-soto, beheko solairu eta lehenengo solairua-

rekin, azken hori eraiki berria–; bestetik, amentzako eraikineko espazioetan, zeinak birmoldatu eta eraikitako bolumen berrian integratuko baitziren.

Proiektua egiteko oroit-idazkian, plan funtzionalaren osagarri diren espazio batzuk aipatzen dira, exekuzio-proiektuan sar daitezzen, eta bolumen berriaren eraikuntzak sortutako afekzioak aztertzen dira.

Proiektuan, zeina plan funtzionalaren eta aurrez aipatutako oroit-idazkiaren arabera idatzi baita, esaten da eraikin berriaren egitura kalkulatu zela etorkizuneko ospitaleraterako lau solairu berri eraiki ahal zitezzen.

Ama-haurrentzako larrialdietako eraikinaren guztizko kostua, ekipamendua barne, 8.592.866 eurokoa izan zen, eta honako kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldak.	Betetako gastua
Aldez aurreko azterketak	11.600	11.600	2007		11.600
Proiektuaren erredakzioa	323.782	229.680	2008		229.680
Obra	7.800.000	7.055.100	2009	413.817	7.489.647
Obra-zuzendaritza	153.120	153.120	2009	2.439	155.559
Ekipamendua	87.500	71.140			706.380
Inbertsioa, guztira					8.592.866

Desbideratze ekonomikoak eta azpiegitura honen exekuziorako eta funtzionamenduan jar-zeko epeetan izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera-data	2009ko urriaren 26a
Obrarako aurreikusi den amaiera (22 hilabete)	2011ko abuztuaren 26
Epearen luzapena	2011ko azaroaren 30a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2011ko abenduaren 30a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	Hilabete bat
Funtzionamenduan hastea	2012ko apirilaren 4a
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	3 hilabete
Lizitazioaren zenbatekoa	7.800.000
Adjudikazioaren zenbatekoa	7.055.100
Esleipenaren baja	% 9,5
Exekuzioaren zenbatekoa	7.489.647
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea	% 6,16

Obra epean egin zen, eta jaso eta hiru hilabeteren buruan hasi zen funtzionamenduan.

Obra-kontratua aldatu zen unitate berriak sartu zirelako eta neurketetan aldaketak izan zire-lako –413.817 euro egin zuten–. Honakoan zeutzan aldaketa horiek, nagusiki: medikuntza-gasen biltegien kokapena aldatzea; instalazio elektrikoaren segurtasuna hobetzea; ahots- eta datu-zerbitzuen sarea sartzeko, eta metalezko egituraren gaineztatzea.

Osasun zentroak zabaltzea

Nafarroa 2012 Planak aurreikusten du bi osasun zentro berri egitea San Adrianen eta Buztin-txurin, 8.154.000 euroko guztizko aurrekontuarekin.

- San Adriango osasun etxea



Plan funtzionalean aipatzen da osasun etxeak, oinarrizko osasun laguntzaren jardueraz gainera, emakumeari laguntzeko zentro bat eta errehabilitazio zentro bat hartuko dituela, eta jardura horietako bakoitzaren beharkizunak zehazten ditu.

Obra horiekin, 1974an eraikitako 600 m²-ko osasun etxe bat izatetik 1.916 m²-ko osasun-etxe bat izatera pasatzen da; azken horrek, lehendik zeuden zerbitzuez gainera, zerbitzu berriak hartuko ditu.

Honakoak dira San Adriango osasun etxeko inbertsioari buruzko datu ekonomikoak:

Kontzeptua	Lizitazio-prezinoa	Esleipen-prezinoa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	Betetako gastua
Proiektua	70.000	51.500	2008			51.500
Obra-zuzendaritza	70.000	51.500	2009	813	2011	52.313
Obra	3.580.871	2.685.653	2009	109.474	2010	2.858.225
Ekipamendua	200.976	122.609	2011			270.896(1)
Inbertsioa, guztira						3.232.934

(1) Eskari bidezko ekipamendua biltzen du

Desbideratze ekonomikoak eta zentro honen obren exekuziorako eta funtzionamenduan jartzeko epean izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera-data	2009ko azaroaren 3
Obrarako aurreikusi den amaiera (15 hilabete)	2011ko otsailaren 4a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2011ko martxoaren 11
Obra-exekuzioaren desbideratzea	hilabete bat
Abian jartzea	2013ko apirilaren 15a
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	Bi urte
Lizitazioaren zenbatekoa	3.580.871
Adjudikazioaren zenbatekoa	2.685.653
Esleipenaren baja	% 25
Exekuzioaren zenbatekoa	2.858.225
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea	% 6,4

Osasun etxea amaitu eta bi urteren buruan jarri zen funtzionamenduan, zeren eta Udalaren eskumenekoak ziren urbanizazio-obrak falta baitziren.

Obra-kontratuaren exekuzioan zehar, 109.474 euroko aldaketa bat onetsi zen 2010ean, kontusail berri batzuk baitzeuden; horien artean, altzari ahokatuena nabarmendu beharra dago.

BEZ tasan 2010ean izan zen egoerak 19.783 euroko gastu osagarria ekarri zuen.

- Buztintxuriko osasun etxea



Azpiegitura honen beharraren justifikazioa Buztintxuri, Artika eta Artiberri II osasun eskualde oinarritzko berrian aurreikusitako populazio hazkundera izan zen. Osasun etxe berriak, oinarritzko osasun laguntzaren jarduera hartzeaz gainera, osasun mentaleko zentroaren eta emakumeari laguntzeko zentroaren jarduera hartuko zituen –biak ala biak beste zentro batzuetan zeuden kokatuta–.

Buztintxuriko osasun etxeak, ekipamendua barne, 6.321.323 euroko kostua izan zuen. Honako da kostu horren xehakitzea:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	Betetako gastua
Proiektua	210.000	170.520	2007			170.520
Obra-zuzendaritza	140.000	113.680	2008	431	2010	114.111
Obra	6.149.688	5.064.268	2008	428.481	2010	5.500.033
Ekipamendua	599.086	477.225	2010			536.659
Inbertsioa, guztira						6.321.323

Desbideratze ekonomikoak eta zentro honen exekuziorako eta funtzionamenduan jartzeko epean izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera-data	2008ko azaroaren 3a
Obrarako aurreikusi den amaiera (18 hilabete)	2010eko maiatzaren 4a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2010eko urriaren 18a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	6 hilabete eta erdi
Abian jartzea	2011ko apirilaren 4a
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	5 hilabete eta erdi
Lizitazioaren zenbatekoa	6.149.688
Adjudikazioaren zenbatekoa	5.064.268
Esleipenaren baja	% 17,65
Exekuzioaren zenbatekoa	5.500.033
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea	% 8,60

2010ean, obra-kontratuaren aldaketa bat onetsi zen, 428.481 eurokoa, klimatizazio-instalazioen eraikuntza-beharrizan berriak, fatxadako materiala eta lurren mugimenduak zirela eta, besteak beste.

Gaur egun, oinarriko osasun laguntzako 30 kontsultetatik 22 daude funtzionamenduan. Gainerako zortzi kontsultak ekipatuta eta itxita daude, aurreikusita dagoen populazioa dela-eta – 17.300– gertatzekoa den jarduera sortzen ez den bitartean.

Ikerketa Biomedikorako Zentroa



Osasun Departamentuaren Ikerketarako Plan Estrategikoak jasotzen du Ikerketa Biomedikorako Zentroa sortzea, ikerketan jardun dezan guztiz.

Nafarroa 2012 Planean artu zen, 22.413.000 euroko aurrekontuarekin. Eraikin hau egitea beharrezko jardueratzat hartzen zen ikerketa biomedikoko plana aplikatzeko eta oinarritzko osasun laguntzako eta hainbat espezialitatetako ikerketa bultzatzeko.

O-NOZek erabaki zuen ikerketa zentroa jartzea Nafarroako Ospitalearen Biltegi Nagusiak hartzen zuen orubean; hori dela eta, zentroaren proiektuaren barruan biltegi hori birkokatzea aurreikusi behar zen.

2007ko azaroan, Ikerketa Biomedikorako Zentrorako, Biltegi Nagusiaren eta Liburutegiaren Plan Funtzionala onetsi zen.

2008ko proiektuan guztira jasotako azalera 9.943 m²-koa zen. Azalera erabilgarriaren ehuneko 69, estaldurak kenduta, Ikerketa Biomedikorako Zentroari dagozkio; ehuneko 24, Biltegi Nagusiari, eta ehuneko zazpi, azkenik, Liburutegiari.

2011n, 842.551 euroko aldaketa bat onetsi zen, batez ere animaliategirako espazioak birbanatzeko, GMP aretoa birmoldatzeko, burmuinen bankurako eta laguntzako eta laborategietarako eremu zentraletarako.

2010ean BEZ tasa ehuneko 16tik ehuneko 18ra igotzeak 213.858 euroko gastua ekarri zuen, eta 2012an 703.414 euroko gastu osagarri bat onetsi zen, amaierako likidazioarekin.

Azpiegiturak 21,15 milioi euroko kostua izan zuen, honako kontzeptuetan xehakatur:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketa-urtea	Betetako gastua
Laguntza teknikoa			2008			140.000
Proiektua	495.000	346.500	2008	51.975	2008	476.724
Obra-zuzendaritza	398.475			5.585		404.060
Obra	22.410.000	16.350.336	2009	842.551	2011	18.110.162
Biltegiaren behin-behineko kokapena						162.408
Beste gastu batzuk						18.517
Ekipamendua						1.834.209
Inbertsioa, guztira						21.146.080

140.000 euroko laguntza teknikoa honakoan zetzan: plan funtzionalerako dokumentazioa prestatzea eta zentroa hobetzeko proposamen bat egitea. 2008an onetsi eta ordaindu zen, emandako zerbitzuen kalte-ordain baten gisara, zeren eta 2007an kontratatu zenean ez baitziztaion gastua esleitzeko eta onesteko legezko prozedurari jarraitu.

Ekipamenduak 1.834.209 euroko kostua izan zuen; honakoei dagozkie:

- 1.783.840 euro al Ikerketa Biomedikorako Zentroari.
- 49.451 euro Biltegi Nagusiari.
- 918 euro Ospitaleguneko laborategi bateratuei.

Ikerketa Biomedikorako Zentroaren ekipamendua 2012tik 2014ra erosi zuten Osasun Departamentuak eta O-NOZek, eta 2014tik aurrera zuzenean erosi zuen Miguel Servet Fundazioaren bitartez. Fundazio, hori, berriz, Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik eginiko kapital-transferentzien bitartez finantzatzen da.

Ikerketa Biomedikorako Zentroari dagokionez, 2012an, laborategiko eta esterilizazioko altzarien hornikuntza-kontrataziorako hiru espediente izapidetu ziren, 1.934.984 euroko guztizko lizi-

tazio-prezioarekin. Horietatik bitan, esleipen-fasean ezetsi ziren kontratazioak, aurrekontu-arrazoiak tarteko; 983.600 eurokoa zen hirugarrenean, berriz, ez zen lizitazio iragarkia argitaratu.

2012an, Biltegi Nagusiaren kudeaketa integralerako ekipamendu logistikoaren renting kontratu bat formalizatu zen 2013ko otsailetik 2008ko urtarrilera zihoan eperako, 173.538 eurokoa eta 189.314 eurokoa, 2013rako eta 2014rako, hurrenez hurren.

Desbideratze ekonomikoak eta zentro honen exekuziorako eta funtzionamenduan jartzeko epean izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera data (zuinketa-akta)	2009ko irailaren 2a
Obrarako aurreikusi den amaiera (26 hilabete)	2011ko azaroaren 2a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2011ko azaroaren 30a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	28 egun
Funtzionamenduan jartzea (partziala)	2013ko martxotik 2015eko urtarrilera
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	15-37 hilabete
Lizitazioaren zenbatekoa	22.410.000
Adjudikazioaren zenbatekoa	16.350.336
Esleipenaren baja	27
Exekuzioaren zenbatekoa	18.110.162
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea	% 10,76

Eraikina 2011ko azaroan amaitu zen, eta 2013ko martxotik jarri zen funtzionamenduan, partzialki, laborategi bateratua lehenengo solairuan eta beheko solairuko zati batean jarrita, 2015eko urtarrilean. Azpiegitura amaitu eta hiru urte iragan direnean, eremu guztiak ez daude funtzionamenduan; besteak beste, GMP aretoa eta animaliategia falta dira.

Zientzia eta Berrikuntza Ministeriotik 2007an eta 2008an jasotako 375.284 eta 2.329.768 euroko aurrerakinekin, hurrenez hurren, finantzatu zen obra; aurrerakin horiek I+G zentroetarako ziren, Zientzia eta Teknologia parkeetan, eta interesik gabe itzultzekoak ziren, urteko 12 kuota-tan; azken kuotek 2022an eta 2023an izanen ziren.

Halaber, FEDER-en diru-laguntza bat jaso zen, 7.807.299 eurokoa. Ikerketa Biomedikorako Zentroa FEDER 2007-2013 Navarra programa operatiboaren barruan dago, 1. ardatzean, ezagutzaren eta berrikuntzaren ekonomiaren eta enpresa-garapenaren arloan, betiere I+GT-ko azpiegituraren barruan eta teknologia jakin bateko kualifikazioa duten zentroen sailean. Aipatzen da zentroa soilik ikerketarako izanen dela, eta horretarako eman zitzaion diru-laguntza. O-NOZek 2017ko martxoan justifikatu beharko du diru-laguntza aplikatu duela eman zitzaion xederako.

Irudi Medikoaren Zentro Nazionala. Azpiegitura zientifiko tekniko berezia.

Inbertsio hori, Nafarroa 2012 Planean sartutakoa 18.710.700 euroko aurrekontuarekin, azpiegitura zientifiko tekniko berezi baten gisara definitzen da, eta nazioko eta nazioarteko bikaintasun zentro bat izan behar du irudi medikoaren arloko ikerketaren eta berrikuntzaren esparruan.

Aurreikusita zegoen zentro hori finantzatzea zentro teknologikoei buruzko Estatuarekiko hitzarmen baten bitartez.

2009an, 43.800 euroan, laguntza tekniko kontratatu zen Nafarroako Irudi Medikoaren Zentro Nazionala azpiegitura zientifiko tekniko bereziaren proiektua finkatu eta zehaztuko zuen agiri bat egiteko, proiektua Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak onets zitzaizten.

2009ko abenduaren 30ean, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak eta Foru Komunitateak lan-kidetza hitzarmen bat sinatu zuen, Nafarroako Irudi Medikoaren instalazioa abian jartzearekin lotutako jarduerak bultzatzeko.

Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak beren burua behartu zuten jarduera horiek finantzatzera bakoitzak 300.000 euro ordainduta, Estatuako 2009ko Aurrekontu Orokorren kargura eta Nafarroako Foru Komunitateko 2010eko aurrekontuen kargura, hurrenez hurren. 2011n, Estatuaren 300.000 euroko ekarpen bat jaso zen.

Txosten bat badago non planteatzen baita 2011n Irudi Medikoaren Zentro Nazionalaren proiektuaren idazketa kontratatzeke beharra, 300.000 euroko gehieneko aurrekontuarekin.

Gaur-gaurkoz, 2015eko apirilean, proiektua esleitu gabe dago.

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren ebazpen bat badago, 2014ko abuztuaren 28koa, 300.000 euro, gehi berandutza-korrituen 64.767 euroko kopurua, itzultzeko prozedurari buruzkoa, Nafarroak irudi medikoaren instalazio abian jartzearekin lotutako jarduerak sustatzeko lankidetzaz hitzarmenari dagokiona.

Guztira, Irudi Medikoaren Zentro Nazionala dela-eta, 95.052 euro gastatu dira 2009an eta 2010ean. Nafarroa 2012 Planean, 459.000 euroko gastua jaso zen, 2012ko abenduaren 31n.

Nafarroa 2012 Planaren azkeneko jarraipen-txostenean, 2012ko abenduaren 31koan, aipatzen da ezen abagune ekonomikoa zela-eta proiektua birplanteatu egin zela eta etorkizunerako aurreikusita dagoela zentroa lehendik dagoen eraikinen batean jartzea, aurrekontuan dagoen diruaren arabera.

V.2. NAFARROA 2012 PLANEAN JASOTA EZ DAUDEN BESTE INBERTSIO BATZUK

Hemodialisi Zerbitzua

Nefrologia Zerbitzua Nafarroako Ospitaleko C Pabilioian kokatuta dago, eta pabilioi horren erreforma-lanei ekiteko hustu behar izan zen.

Ospitaleko Gerentziak proposatu zuen hemodialisi zerbitzua erradioterapia-erakineko sotan hutsi zeuden espazio batzuetara eramatea.

Nafarroako Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuaren 2006ko Plan Funtzionalean zerbitzu hori zabaldu beharra zegoela justifikatu zen esanez giltzurruneko gutxiegitasun kronikoak gora egin duela eta haren prebalentzia handia dela, eta jo zen Nafarroako Ospitalean dialisian artatutako gaixoak 2005ean 102 izatetik 2014an 150 izatera pasa direla.

Honakoak egitea aurreikusi zen: gaixo kronikoentzako hemodialisi unitate bat, gaixo akutuentzako hemodialisi unitate bat, isolamenduko bi unitate, eta beste zuzkidura batzuk –besteak beste, ura tratatzeko planta bat, kontsultak, itxaroterako areto bat eta ikasketa-areto bat–.

2008ko ekainean, obra hori amaitu zen, eta hilabete geroago hemodialisiko bi areto zabaltzeko proiektuaren idazketa esleitu zen, erradioterapiako eraikineko sotoetan erabili gabe zeuden espazioak erabiltzeko, aipatuz "denbora-tarte labur bat iraganda, ikusi dela zerbitzu hori, egun daukan errealitatean, saturatuta dagoela eta beharrezko ikusten dela erreserbako bi toki erabiltzea".

Dialisiko bi aretoen zabalpenerako plan funtzionalean, aipatu zen haiek beharrezkoak direla gaixo kronikoentzat. Ez da artatutako gaixoei buruzko zenbakirik ematen, zabalpenaren beharra zerbitzuaren saturazio-egoeran oinarritze aldera.

Hurrengo tauletan, hemodialisi zerbitzuko inbertsioaren guztizko kostuaren xehakatzeara erakusten dugu, bai eta exekuzioaren eta funtzionamendu-jartzearen desbideratzeak ere.

	Hemodialisi zerbitzu berria	2 areto zabaltzea	Guztira
Proiektua	55.991	17.500	73.491
Obra-zuzendaritza	55.991	17.500	73.491
Obra	1.942.006	380.137	2.322.143
Ur plantaren instalazioa	189.968		189.968
Zenbait instalazio	22.330		22.330
Ur osmotizatuko uztaila	46.037		46.037
Beste gastu batzuk	17.644		17.644
Ekipamendu medikoa			233.862
Altzariak			241.264
Kostua, guztira			3.220.230

	Hemodialisi zerbitzu berria	2 areto zabaltzea
Obraren esleipen-data	2007ko abuztuaren 3a	2008ko irailaren 22a
Obraren hasiera-data	2007ko abuztuaren 21a	2008ko urriaren 6a
Exekuzio epea	4 hilabete	94 egun
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2008ko ekainaren 9a	2008ko abenduaren 30a
Obraren exekuzio-epearen desbideratzea	5 hilabete eta erdi	Epean exekutatzea
Abian jartzea	2009ko otsailaren 2a	2009ko otsailaren 2a
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso	7 hilabete eta 24 egun	Hilabete bat
Lizitazioaren zenbatekoa	1.932.711	372.452
Adjudikazioaren zenbatekoa	1.778.094	361.278
Esleipenaren baja	%8	% 3
Exekuzioaren zenbatekoa	1.942.006	380.137
Hasierako esleipenaren desbideratzea	% 9,22	5,22%

Nafarroako Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuaren obrak eta ekipamenduak 3.220.230 euroko kostua izan zuten. Zerbitzu honek 2.732 m²-ko azalera eraikia hartzen du, eta honela dago banatuta: gaixo kronikoentzako hemodialisiko 46 toki, zortzina tokiko bost aretotan; infekzioa duten gaixoentzako lau toki dituen areto bat, eta gaixo akutuentzako bi toki dituen areto bat.

2009ko otsailean jarri zen funtzionamenduan, zabalduetako bi aretoetako bat izan ezik –zortzi monitoretzako tokia dauka eta gaur egun oraindik ere okupatu gabe dago; bertan, erabiltzen ez diren hemodialisiko zortzi monitore zahar daude–. Areto hau ez da funtzionamenduan jarri, nahiz eta 2015eko urtarrilean zerbitzu horretara eraman zen Bideko Ama Birjina Ospitaleko jardueraren zati bat eta gaixo batzuk zentro pribatu batera deribatzen diren.

Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko erditzeen eremua

2008an, proiektu bat idatzi zen Lizarrako García Orcoyen Ospitalean igogailu bat jartzek eta erditzeen eremurako sarbideko lehen solairua birmoldatzeko. Proiektu hori baztertu egin zen urtebete geroago, eta beste proiektu bat egin zen "erditzeen eremuaren zabalpena eta erreforma" izenaren pean.

Ez dago jasota beharizanen azterlanik edo txostenik, ez eta hasierako proiektuaren aldaketa erabakitzeke arrazoirik ere.

Inbertsio honen guztizko kostua, ekipamendua barne, 1.112.553 eurokoa izan zen, eta honako kontzeptuei dagokie:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	Betetako gastua
Hasierako proiektua	Lizitaziorik gabe	8.572	2008			8.572
Proiektu berria	Lizitaziorik gabe	36.366	2009			36.366
Obra-zuzendaritza	Lizitaziorik gabe	36.300	2009			36.738
Obra	850.000	675.000	2009	79.412	2010	804.197
Ekipamendua	196.778	184.524	2011			226.680 (1)
Inbertsioa, guztira						1.112.553

(1) Eskari bidez eskuratutako ekipamendua biltzen du

Proiektua kontratatu zen kasuko espediente administratiboa izapidetu gabe; gainera, gastua egiteko baimenik ez zegoen, ez eta esleipenerako deialdirik ere.

Desbideratze ekonomikoak eta inbertsio honen exekuziorako eta funtzionamenduan jartzeko epeetan izandako desbideratzeak honakoak izan ziren:

	Obra
Obraren hasiera data (zuinketa-akta)	2009ko urriaren 5a
Obrarako aurreikusi den amaiera (8 hilabete)	2010eko ekainaren 5a
Epearen luzapena (3 hilabete)	2010eko irailaren 5a
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2010eko azaroaren 25a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	2 hilabete eta 20 egun
Abian jartzea	2011ko abuztua
Funtzionamenduaren geroratzea, obra jaso denetik	9 hilabete
Lizitazioaren zenbatekoa	850.000
Adjudikazioaren zenbatekoa	675.000
Esleipenaren baja	% 20,6
Exekuzioaren zenbatekoa	804.197
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea	% 19,1

Obra 2011ko abuztuan jarri zen funtzionamenduan, amaitu eta bederatzi hilabeteren buruan.

Onetsitako obra-aldaketak 79.412 eurokoak izan ziren, kontusail berrien eta neurketetan izandako aldaketen –goranzkoak eta beheranzkoak– ondorioz.

Xabier Egoitza

2009an, Zentro Psikogeriatrikoaren inguruetan dagoen Xabier Egoitzan igogailu bat eta barne-eskailera bat egiteko obra egin zen. 74.400 euroko guztizko kostua izan zuen (7.440 euro proiektuak eta 66.960 euro obrak), eta parlamentu-zuzenketa baten bidez onetsitako kontusail bati egotzi zitzaion.

2011n, Xabier Egoitza birmoldatzeari eta hobetzeari ekin zitzaion, bai eta San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikorako sarbideak ere.

Jarduketa horren beharra justifikatu zen esanez Zentro Psikogeriatrikoan egin beharreko inbertsioen exekuzioa atzeratzen ari zela eta hartarako epe luzea zegoela. Zentro hori egiteko obretarako udal lizentziak honako baldintzak zeuzkan: barne erreformako plan berezi bat onestea, barrakoi bat eraistea eta eraispin horrek ukitutako eremua berrurbanizatzea.

Halaber, udal eskakizun bat bazegoen, egoitzaren akatsak direla eta, jarduera sailkatuko espediente bat izapidetzeko.

Xabier Egoitzaren birmoldatzearen eta hobekuntzaren guztizko kostua 718.171 eurokoa izan zen, eta Zentro Psikogeriatrikoaren plan zuzendariko kontusailari egotzi zitzaion. Honako kontzeptuetan xehakatzen da:

Kontzeptua	Lizitazio-prezioa	Esleipen-prezioa	Esleipen-urtea	Aldaketak	Aldaketaren urtea	Betetako gastua
Proiektua		17.760	2010			17.760
Obra-zuzendaritza		17.760	2011			17.760
Obra	819.020	614.150	2011	59.923	2011	674.073
Beste gastu batzuk						8.578
Inbertsioa, guztira						718.171

Exekuzioaren desbideratzeak, prezioan zein epean, honakoak izan ziren:

	Zentro psikogeriatriko- rako sarbidea	Xabier Egoitza
Obraren hasiera data (zuinketa-akta)	2011ko uztailaren 21a	2011ko abuztuaren 31
Obrarako aurreikusi den amaiera (4 hilabete)	2011ko azaroaren 21a	2012ko abenduaren 31
Obraren amaiera-data (jasotze-akta)	2012ko apirilaren 19a	2012ko apirilaren 19a
Obra-exekuzioaren desbideratzea	5 hilabete	3 hilabete eta erdi
Lizitazioaren zenbatekoa		819.020
Adjudikazioaren zenbatekoa		614.150
Esleipenaren baja		% 25
Aldaketak		59.923
Exekuzioaren zenbatekoa		674.073
Esleipen-prezioaren gaineko desbideratzea		% 10

2011n, 59.923 euroko obra-aldaketa bat onetsi zen, eraikuntza-behar batzuk zirela eta. Horrek kontusail berriak eta neurketa-aldaketak ekarri zituen.

Obra horietaz gainera, 2010etik 2014ra bitarteko aldirian, 248.081 euroko inbertsioak egin ziren Xabier Egoitzan.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga kontu-ikuskari andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean 2015eko apirilaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA OSASUN DEPARTAMENTUAREN NAFARROA 2012 PLANAREN AZPIEGITURAK.

Nafarroa 2012 Planeko ekintza	Nafarroa Planeko ekintzaren izena	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Orokorra, guztira
9	Nafarroako Medikuntza Teknologia Gunea											95.850
	Nafarroa 2012 Planeko aurre- kuspena	49.031.600	49.031.600	1.295.900	1.295.900	600.000	700.000	700.000	700.000			700.000
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatu	0	0	100.000	600.000	0	0	0	0			700.000
	BENETAKO KOSTUA			95.850								95.850
10	Nafarroako Ospitaleko "C" pabilioia birmoldatzea											
	Nafarroa 2012 Planeko aurre- kuspena	29.972.000	28.970.000	32.441.500	32.441.500	32.441.500	32.441.500	32.397.400	32.397.400			32.397.400
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatu	307.700	4.366.100	11.175.000	8.421.500	1.530.300	1.530.300	1.530.300	1.530.300			25.800.600
	BENETAKO KOSTUA	161.293	403.414	88.309	4.441.606	11.181.844	8.597.297	716.957	277.667	850.762		27.027.097
11	Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia-bloke berria											
	Nafarroa 2012 Planeko aurre- kuspena	21.400.000	17.206.600	17.206.600	10.117.200	10.117.200	10.117.200	10.117.200	10.117.200			10.117.200
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatu	307.000	307.000	875.800	4.595.800	5.317.400	5.317.400	5.317.400	5.317.400			11.403.000
	BENETAKO KOSTUA	51.620	307.031	307.030	878.056	6.109.906	4.398.711	2.866.485	18.722.103			18.722.103
12	Nafarroako Ospitaleko Larrialdietarako eraikina											
	Nafarroa 2012 Planeko aurre- kuspena	19.727.000	27.222.200	27.222.200	24.952.600	24.952.600	24.952.600	24.952.600	24.952.600			24.952.600
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatu	0	97.200	4.880.900	10.530.300	11.758.300	11.758.300	11.758.300	11.758.300			27.266.700
	BENETAKO KOSTUA	429.259	247.659	4.893.192	10.292.979	7.527.893	1.556.498	690.153	25.637.632			25.637.632
13	Ubarmin Klinikako kirurgia eremuak birmoldatzea											
	Nafarroa 2012 Planeko aurre- kuspena	11.527.000	12.303.000	11.826.300	11.826.300	9.540.600	9.540.600	9.540.600	9.540.600			9.540.600
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatu	627.000	737.800	4.714.600	461.200	2.679.700	2.679.700	2.679.700	2.679.700			9.220.300
	BENETAKO KOSTUA	52.320	721.111	4.696.771	1.448.182	2.679.691	139.380	9.738.455				9.738.455
14	Tuterako osasun barrutiko kirurgia eremuen birmoldatzea											
	Nafarroa 2012 Planeko aurre- kuspena	10.650.000	17.498.000	21.990.200	21.990.200	14.471.700	14.471.700	14.471.700	14.471.700			14.471.700
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatu	0	671.300	3.502.600	6.117.800	3.803.100	3.803.100	3.803.100	3.803.100			14.094.800
	BENETAKO KOSTUA	280.000	1.431.996	6.361.945	3.630.183							11.704.124

Nafarroa 2012 Planeko ekintza	Nafarroa Planeko ekintzaren izena	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	Orokorra, guztira
15	Zentro Psikoeriatrikoko Plan Zuzendaria											
	Nafarroa 2012 Planeko aurrei- kuspena		9.200.000				13.790.000	13.790.000	829.600			829.600
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatua		90.000		60.000		33.000	646.600				829.600
	BENETAKO KOSTUA		90.000		59.993		15.257	105.000	268.698		180.523	719.472
16	Bideko Ana Birjina Ospitaleko ama-haurrentzako larrialdi berriak											
	Nafarroa 2012 Planeko aurrei- kuspena		8.600.000				8.652.300	8.652.300	8.678.200			8.678.200
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatua		229.700		605.000		2.792.800	4.550.700	335.300			8.513.500
	BENETAKO KOSTUA		11.600		229.680		2.850.934	4.717.644	178.007			8.592.866
17	Osasun etxeak zabaltzeko plana											
	Nafarroa 2012 Planeko aurrei- kuspena		8.154.000		9.659.000		16.549.200	16.549.200	9.528.600			9.528.600
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatua		335.500		4.074.600		4.804.100	314.400	0			9.528.600
	BENETAKO KOSTUA		85.260		335.456		4.074.592	4.761.679	297.268			9.554.255
22	Nafarroako Ospitaleko ikerketa zentro berria											
	Nafarroa 2012 Planeko aurrei- kuspena		22.413.000				22.750.800	22.750.800	21.206.400			21.206.400
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatua		313.000		391.300		9.022.300	7.784.300	2.139.000			19.649.900
	BENETAKO KOSTUA		547.784		755.156		9.067.025	7.505.025	2.148.818		624.624	497.648
24	Irudi Medikoaren Zentro Nazionala											
	Nafarroa 2012 Planeko aurrei- kuspena		18.710.700				6.650.000	6.650.000	459.000			459.000
	Nafarroa 2012 Planean exeku- tatua						159.000	300.000				459.000
	BENETAKO KOSTUA						81.552	13.500				95.052

Kostu erreala: obra-proiektuaren eta -zuzendaritzaren ordainsariak, obraren exekuzioa, ekipamendua eta bestelako gastuak.
Nafarroako Planaren aurreikuspena: Nafarroa 2012 Planaren hasierako txostena eta ekitaldi bakolizeko abenduaren 31ko urteko txostenak.
Nafarroako Planetik exekutatutako dena: jarraipen txostenak eta 2012-12-31ko amaierako txostena-2008-2012 urteetan metatutako inbertsio exekutatua"

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

"OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN OSASUN AZPIEGITUREN KUDEAKETA (2008-2014)" KONTUEN GANBERAREN TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberaren txostenak zenbait aipamen dauzka Nafarroa 2012 Plana izene-koari buruz. Horren inguruan, honako alegazioak aurkezten ditugu:

Nafarroa 2012 Planean onetsitako inbertsioei buruzkoa den V.I atalean, azpiegitura bakoitzean exekututako gastua xehakatzen da, Nafarroa 2012 Planean jasotako plan-gintzari eta exekuzioari eta inbertsioaren exekuzio errealari dagokienez.

Zehazki, medikuntzako gune teknologikoari buruz, honakoa esaten da: "*Azpiegitura hori dela-eta guztira exekutatu den gastuak 95.850 euro egiten du. Gastu hori 2010eko aurreproiektuaren idazketari dagokio. Nafarroa 2012 Planak, 2012ko abenduaren 31rako, 700.000 euroko gastua jaso zuen*". Bestalde, honakoa dio irudi medikoaren zentro nazionala azpiegitura zientifiko tekniko bereziari buruz: "*Guztira, Irudi Medikoaren Zentro Nazionala dela-eta, 95.052 euro gastatu dira 2009an eta 2010ean. Nafarroa 2012 Planean, 459.000 euroko gastua jaso zen, 2012ko abenduaren 31n*".

Horri dagokionez, esan beharra daukagu Politika eta Sustapen Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusia izendatu zela Nafarroa 2012 Planaren exekuzioaren jarraipenaz arduratzeko, lehentasunezko 90 jarduketei zegokienez, bai eta Nafarroako Gobernuari informatzeari dagokionez ere, hiru hilez behin jarduketa bakoitzaren eragile-arduradunek eman beharreko datuetan oinarrituta. Arduradun bakoitzak datu horiek osatzeko erabiltzen zituen irizpideak ez ziren modu formalean ezarri, baina ez zitzaizkien kontabilitate-irizpideei lotu behar, baizik eta, nagusiki, aldiaren izandako inbertsioaren exekuzio errealari. Halaber, esan beharra dago jarduketak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura edo aurrekontuz kanpoko bestelako finantzabide batzuen bitartez finantza zitezkeela.

Egiaztatu da aipatutako bi jarduketan jarraipen-fitxetan, eragile-arduradunak (zeina bi proiektuetan bera baitzen) hiruhileko jakin batean konputatu zuela metatutako eta exekututako inbertsio bat, 700.000 eurokoa eta 459.000 eurokoa, hurrenez hurren, Nafarroa 2012 Planeko amaierako txostenean, 2012ko abenduaren 31koan, jaso bezala.

Hala eta guztiz ere, egiaztatu ahal izan da geroko jarraipen-fitxa batean aurreko hiruhilekoei buruzko informazioa aldatu egin zuela bi proiektuetarako izendatuta zegoen eragile-arduradun berri batek. Akats material bat tarteko, informazio hori ez zen sartu hiruhilekoen jarraipen-txostenetan. Informazio horri erreparatuta, Nafarroa Planeko jarduketan jarraipenaren arduradunaren txostena bat dator egiazki exekututakoarekin, eta, horrenbestez, ez dago desadostasunik kontabilitate-informazioaren eta Nafarroa 2012 Planaren jarraipenerako emandako informazioaren artean. Hartara, honakoa dago jasota:

Nafarroako medikuntzako gune teknologikoa: 100,0 mila euro, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako 6. kapituluaren bidez finantzatuak.

Irudi medikoaren zentro nazionala azpiegitura zientifiko tekniko berezia: Nafarroako Aurrekontu Orokorren 6. kapituluarekin finantzatutako inbertsio bat dago konputatua, 300,0 mila eurokoa, Nafarroako Gobernuak eta MINECOk izenpetu beharreko hitzarmenari dagokiona; azkenean ordea, ez zen onetsi, aurrekontuan dirurik ez zegoelako. Jasota dago gainerako gastua aurrekontuz kanpoko finantzabideekin finantzatuta dagoela.

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria:
Lourdes Goicoechea Zubelzu

"OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN OSASUN AZPIEGITUREN KUDEAKETA (2008-2014)" AUDITORIARI BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun azpiegituren 2008-2014 aldiko kudeaketari buruzko auditoriako behin-behineko txostena jaso ondoren, honako alegazioak aurkeztu ditugu:

Ekipamendu medikoaren eta higigarrien inbentario baloratu eta gaurkoturik ez dagoela dioen baieztapenari dagokionez, esan beharra daukagu zentro guztiek ekipo medikoen eta instalazioen inbentario bat dutela, eta elektromedikuntza orokorraren esleipen-hartzailea den enpresak mantentzen eta eguneratzen du, zeren eta horrela baitago jasota kontratu horiek arautzen dituzten orrietan.

Larrialdietako eraikinaren kostua 6,16 milioi handiagoa izateari dagokionez, esan beharra daukagu Nafarroako Ospitalegunea sortzeak –larrialdietako eraikinaren lehenengo proiektua eta ondoren sortu zen– berarekin ekarri zuela azpiegitura berri bat egitea, non antzinako bi ospitaleetako larrialdietako zerbitzuak batean egonen ziren. Aipaturako zenbatekoak bi kontzepturi egiten die aipamena: eraikina tamaina handiagokoa egin behar izatea (horrek Nafarroako Ospitalerako larrialdi zerbitzu bakarrerako aurreikusitakoa baino 2 milioi gehiagoko kostua ekarri zuen) eta bi ospitaleak lotuko zituen galeria bat egin behar izatea (4,1 milioi euroko kostuarekin).

C pabilioia egiteko proiektuaren erredakzioari dagokionez, argitu beharra daukagu 2004an proiektuaren idazketa esleitu zela, eta 13.309.732 euroko kopurua eraikinaren kostuari buruzko kalkulu bat izan zela, lizitatzailleek, lehiaketaren lizitazio-fasean, proposamen teknikoan bildutako dokumentazioan jasotakoa.

Proiektuaren idazketarako kontratuaren aldaketa heldu zen Eraikuntzaren Kode Tekniko berriaren beharrezkoetatik; izan ere, horiek direla-eta gorantz aldatu behar izan ziren erosotasun-instalazioen beharrezkoak, eskakizun energetikoa eta instalazioen erregulazioa. Halaber, fase horretan plan funtzionala aldatu zen, jarduketazazalera handituz.

Gero, behin proiektua erredaktatuta, hartan, exekuzio materialerako, 21.938.448 euroko aurrekontua jaso zen, txostenean aipatzen den bezala. Gure ustez, proiektuaren kopuru orokorrari dagokion zenbateko horren eta amaieran exekutaturako gastuaren arteko alderaketa da, azkenean, exekuzioaren desbideratzea azaltzen diguna.

4. Zenbait proiektuaren obretako exekuzioan izandako desbideratzei dagokienez, argitu nahi dugu ezen, oro har, urte hauetan obren harrera –ez hainbeste haien exekuzioa– geroratu egin dela. O-NOZen, ekipamendua jartzeko dauden aurrekontu-zailtasunen aurrean –horrek, izan ere, eragozten zuen eraikinak abian jartzea– ez gehituen esleipen-hartzaileak premiatu obren harrera lehenbailehen izan zedin, eta denbora gehiago izan zuten behar ziren probak egiteko eta akaberak zuzentzeko.

5. Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgia-eremuen birmoldaketa-obraen fase desberdinen exekuzioari dagokionez, gustatuko litzaiguke argitzea edozein obraen exekuzioa independentea dela haren ekipamendutik. Kontratazio-prozedura administratibo berezituak dira, behar bezala koordinatuta egon behar dutenak. Nafarroa 2012 Planean, behar ezen ekipamendurako finantzaketa hartzen zen aintzat, baina urte hauetako aurrekontu-zailtasunek ezinezko egin dute 1. fasearen (ebakuntza-gelak eta ZIUak) ekipamenduari ekitea.

2. faseko laborategiak kentzeko egin diren aldaketak, haiek Navarra Biomeden eraikineko laborategi batuetara eraman baitira, aukera eman zuten obrako 3. eta 4. faseekin jarraitzeko, aurrez ekipamendua eskuratzea behar zuketuen unitateen lekualdaketak egin behar izan gabe; horrek aukera eman du obrak amaitzeko.

6. Nafarroa 2012 Planak larrialdietarako eraikin berri bat aurreikusten zuela-eta adierazitakori dagokionez, non kirurgia-eremu bat eta ospitaleratze-eremu bat ere egonen baitziren, argitu beharra dago aurreikuspen hori Nafarroa 2012 Plana hasi zenean argitaratutako agirian jasota zegoela. Alabaina, ez kontratatutako laguntza teknikoan, ez obren exekuzioan ez zen beharrezkotzat jo goiko solairuei erabilera hori ematea.

Hartara, laguntza-kontratuko baldintza tekniko partikularren orrian, azaltzen zen O-NOZek komenigarritzat jo zuela lurzati horretan baimendutako eraikigarritasuna bururaino eramatea, nahiz eta eraikin berriak artean ez zituen erabilera jakinik, eta nahi zela eraikina kanpoko aldetik guztiz amaituta geratzea eta instalazio orokorrak proiektatu zitezela kontuan hartuz une batean edo bestea guztiz beteko zela laguntza-zerbitzuekin.

Baliagarri zeuden espazioetan, larrialdi zerbitzuek sarbide guztiz independente bat eduki behar zuten. Larrialdi zerbitzuak beheko solairua eta lehenengo solairua hartuko zituen, gainerako lokalak beste erabilera batzuetarako utzita. Gaur den egunean, eremu horien erabilera finkatu gabe dago.

San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoaren plan zuzendariaren proiektuari dagokionez, argitu nahi dugu plan zuzendaria egiteko laguntza teknikoa, 900.000 eurokoa bideratuta zegoela azterketa funtzionala egitera; plan zuzendariaren idazketa, 59.993 eurokoa, berriz, arkitektura-planari dagokio.

Funtzionatzen hasi ez den dialisirako aretoaren eraikuntzaren kostuari dagokionez, zehaztu beharra daukagu 380.173 euroko kostua bi areto berdinen eraikuntzari dagokiola; aretoetako bakoitzak dialisirako zortzi toki dauzka.

Txostenean baieztatzen da bigarren aretoa ez dela funtzionamenduan jarri eta gaixoak zentro pribatuetara bideratzen jarraitzen dela; horri buruz esan beharra daukagu Unibertsitate Klinikaren Hemodialisi Unitateak bate ere zentro publikoetatik eramandako gaixoak hartzen dituela, bai eta dialisian hasi behar duten gaixo transplantatuak ere.

CUNen hemodialisian dauden gaixoen kopuruak nabarmen egin du behera azken urteetan, ondoren ematen dugun datuetan ikus daitekeen bezala:

	Nafarroako Ospitalea	Bideko Ama Birjina Ospitalea	CUN	Tutera
2004	93	58	52	27
2005	103	65	48	30
2006	108	73	52	31
2007	130	76	57	36
2008	136	74	56	37
2009	146	77	45	32
2010	158	74	49	43
2011	162	71	44	35
2012	156	66	39	43
2013	159	74	30	44

Nafarroako Ospitaleko Nefrologia Zerbitzuan hasiera batean planteatu zen kronikoen-tzako hiru areto egotea; gero, beste bi areto edukitzeraino zabaldu zen, etorkizunean unitateak izanen zuen hazkuntzari aurre egin ahal izateko. Handik gutxira, 4. aretoa zabaldu behar izan zen, eta gaur arte ez da beharrezkoa izan 5. aretoa zabaltzea, Nafarroako Ospitaleguneko zerbitzu buruaren irizpideei jarraituz. Areto hori ez da ireki behar izan etxex etxeko dialisi-programa aktibo bat jarri delako abian, bai eta giltzurruneko transplanteen programak izan dituen emaitzei esker ere.

Ikuspuntu kliniko batetik, CUNen dialisi-unitateari eustea ezinbesteko baldintza bat da gaur egun zentro horretan egiten diren giltzurruneko transplanteen programari eusteko.

Bestalde nabarmendu beharra dago Nafarroa Espainian, portzentajeari erreparatuta, hemodialisi pribatu gutxien duen erkidegoetako bat dela (dialisian % 10 gutxiago; izan ere, erantsitako taulan ez dira sartzen etxez etxeko dialisian ari diren gaixoak).

Iruñean, 2015eko martxoaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Osasuneko kontseilari Marta Vera andreak eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea andreak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenaren azalpenak direla eta haren ondorioak aldatzen ez dituztela iritzirik, txostenari atxiki zaizkio, eta txostenari behin betiko izaera eman zaio.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako oharren edukiarengatik.

Iruñean, 2015eko apirilaren 14a

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

